



IKASLEENTZAKO JARRAIBIDEAK ¹

1. LARRIALDIA DETEKTATZEN DENEAN .

- ◆ Hurbilen dagoen irakasleari jakinarazi.
- ◆ Bere gelara azkar itzuli.

2. ALARMAK JOTZEN DUENEAN.

- ◆ Ordena mantendu.
- ◆ Beti irakaslearen aginduak jarraituko dituzte eta inoiz ez dute bere kabuz jardungo.
- ◆ Irakasleak aginduak eman dizkien ikasleak, betetzen arduratuko dira eta irakasleari laguntzen taldearen ordena mantentzeko.
- ◆ Ez dute objektu pertsonalik hartuko, oztopoak eta atzerakuntzak saihesteko.
- ◆ Alarma seinaleak jotzen duenean komunean edo solairu bereko beste gune batzuetan dauden ikasleak ahalik eta lasterren bere taldearekin elkartuko dira. Beste solairu baten baleude, talderik hurbilenarekin elkartuko lirateke eta kanpoan bere taldea bilatu eta eurekin elkartu, irakasleari jakinaraziz.
- ◆ Mugimendu guztiak azkar eta ordenean egingo dira, korrikarik egin gabe eta besteak zapaldu eta bultzatu gabe.
- ◆ Irteerako ateetan ez da inor geratuko.
- ◆ Ikasleek Ikastetxea isilean eta ordenean ebakuatu beharko dute, inor zapaldu gabe, zailtasunak dituztenei zein erortzen direnei lagunduz. Ebakuazioa gehienez bi lerrotan burutuko da, hegaletatik arrasto horiak eta berdeak jarraituz. Goiko solairuetakoek behekoetakoak atera arte itxarongo dute, haur txikitxoak zapaldu gabe.
- ◆ Ebakuazioan altzariak eta eskolako ekipamendua errespetatu beharko da.
- ◆ Ebakuazio bideetan irteera oztopatzen duen objekturik balego, ikasleek ahal izanez gero kendu egingo lukete, pertsonen erorketarik ez eragiteko edo/ta objektua ez hondatzeko.
- ◆ Ikasleak sekula ez du atzerantz egingo, aitzakia edozer dela ere.
- ◆ Beti taldeak elkartuta egongo dira, banatu gabe eta aurretik ezarritako kanpoko gunean bilduko dira, irakasleari ikasleen kontrola errazteko.
- ◆ Erortze edo leherketa kasuan, zenbait gela zeharkatu behar direnean, hormen ondotik egin beharko da, sekula ez gelen erditik.
- ◆ Kez gainezka dauden guneak zeharkatu behar direnean, arnasbideak zapi bustiekin babestu beharko dira. Kearen intentsitatea handia denean, ez da gune horietatik zeharkatu beharko.
- ◆ Korridore eta eskailerak kez gainezka daudenean, taldeak gelan geratu beharko du, atea eta lehioak itxita eta ateetako janturretan oihal bustiak jarrita kea sar ez dadin. Leihoen bidez kanpokoen arreta deituko da.

BILGUNEAN GERATU TALDEAREN ARDURADUNAREKIN

Azaldu eta geletan itsatsi.

¹ Oinarrizko Hezkuntza Orokorra, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikastetxeen ebakuazioari buruzko 1984ko azaroaren 13ko M.A. 4. Eranskina.